# JA!

XIV FESTIVAL INTERNACIONAL DE LITERATURA Y ARTE CON HUMOR

INTERNATIONAL FESTIVAL OF LITERATURE AND ART WITH HUMOUR

UMOREZKO LITERATURAREN ETA ARTEAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

27.09—08.10.23
BILBAO



OLGA TOKARCZUK · JOHN BANVILLE · ENRIQUE VILA-MATAS
JORGE BLASS · PILAR ADÓN · DANIEL GASCÓN · ERNESTO SEVILLA
MANUEL JABOIS · MILENA BUSQUETS · AZUL TEJERINA · ANDRÉS IBÁÑEZ · PABLO D´ORS
RAQUEL SASTRE · LOLA BARROSO · JUAN BAS · IMANOL ITUIÑO · TOR MAGOA · LUIS M. MARTÍNEZ
MENCHU GUTIÉRREZ · JAVIER MONTES · CAROLINA ONTIVERO · JESÚS GARCÍA CALERO · MAITE ESPARZA
GUSTAVO MARTÍN GARZO · AIXA DE LA CRUZ · MARÍA FASCE · JUAN ARNAU · MARTA SANZ
JAVIER OLIVARES · FERNANDO MARÍAS

JAFESTIVAL.COM

Bilbao · Bizkaia foru aldundia diputación foral · EMK · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE · Lectura infinita · EUSKADI BASQUE COUNTRY · EL CORREO · bbk · RADISSON COLLECTION GRAN VÍA BILBAO · SER 90 ANIVERSARIO Radio Bilbao · Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea · ehukultura




Bienvenidos, damas y caballeros, nigromantes, hadas, elfos y hechiceras a esta mágica edición de Ja! Festival en la que cumplimos catorce años. Alcanzamos con esta cifra la adolescencia sin la insensatez que conlleva, puesto que ya la llevábamos incorporada de serie.

La magia como tema principal del decimocuarto festival, reflejada en las artes y la cultura. La magia de la imaginación, de lo inexplicable, de lo sobrenatural, de la seducción, de lo que es más rápido que los sentidos, de lo artificial que pretende pasar por auténtico y de lo que nos devuelve la mirada inocente de la infancia. La magia, en estos sugerentes aspectos, asociada a buena parte de los actos del programa y por supuesto al humor.

Estamos muy contentos de este programa de 2023. Tienen razón en lo que piensan: estos vendedores de alfombras (voladoras, claro) siempre dicen lo mismo; pero es la verdad, cada año lo ideamos con el mismo entusiasmo que los diosecillos del inframundo inventan nuevas travesuras.

Encontrarán la pormenorización de cada acto en la web, el encarte y en pintadas que hemos encargado hacer en las tapias a un voluntariado de gnomos y duendes. Solo el apunte aquí de nuestra satisfacción por que la presencia de autores internacionales sea nada menos que la Premio Nobel de Literatura Olga Tokarczuk y el genio (liberado de la lámpara) del estilo John Banville. Y de que venga ese prestidigitador del juego metaliterario que es Enrique Vila-Matas; y de que Pilar Adón, entrevistadora de excepción en Ja!, sea esta vez la entrevistada sobre su obra pródiga en prodigios.

También hemos producido la exposición gráfica y de aroma literario con misterio ‘El enigma Pertierra’, un logro del poder mágico de la imaginación conjurado por Javier Olivares y Fernando Marías. Ha quedado más bonita que la escoba de una bruja recién barnizada; no se la pierdan. A nuestro muy querido amigo Fernando le hubiera encantado y habría dicho que así se hace un homenaje con fuste a su memoria.

Miren por favor con arrobo esa luna ojo y trampantojo del cartel de Javier Jaén y permitan que les hechicemos con la magia blanca y a la vez de brillo oscuro de esta sobrenatural edición. Abracadabra.

*Ongi etorri jaun-andre, nekromante, maitagarri, iratxo, azti eta sorginak, Ja! jaialdiaren hamalaugarren edizio magiko honetara. Nerabezaroak ezaugarri duen burugabekeriarik gabe heldu gara adin honetara, berez eta sortzez baikara burugabeak gu.*

*Hamalaugarren jaialdi honetan, magia da gai nagusia, arteetan eta kulturan islatzen den magia, alegia. Irudimenaren magia, azaldu ezin denarena, naturaz gaindikoarena, limurtzearen magia, zentzumenak baino azkarragoa denarena, benetakoa itxura izan nahi duten gauza artifizialena eta haurren begirada tolesgabeak erakusten diguna. Magiaren alderdi horiekin guztiekin gozatuko dugu, egitarauko ekintzei lotuta, eta jakina, umoreari lotuta beti.*

*Izugarri pozik gaude 2023ko egitarauarekin. Bai, arrazoi duzue: alfonbra-saltzaile hauek (alfonbra hegalariak, noski) gauza bera errepikatzen dute beti. Baina egia da. Urtero, azpimunduko jainko txikiek bihurrikeriak asmatzean sentitzen duten grina berarekin antolatzen dugu jaialdia.*

*Webgunean eta tartekoan, ekitaldi guztien xehetasunak aurkituko dituzue, eta baita gnomo eta iratxo boluntarioek hormetan egindako margoetan ere. Bide batez, esan behar oso harro gaudela, aurten Olga Tokarczuk Literaturako Nobel Saria eta John Banville estiloaren jenioa (lanparatik askatu berria) izango ditugulako gure nazioarteko egileen artean. Horrez gain, joko metaliterarioaren eskuskari den Enrique Vila-Matas ere izango da gurean, eta Ja! jaialdian elkarrizketatzaile aritu den Pilar Adoni haren obra oparoaren gaineko elkarrizketa egingo diote.*

*‘Pertierraren enigma’ erakusketa grafikoa ere badugu. Erakusketak misteriozko literatura-lanaren kutsua dauka, eta Javier Olivaresen eta Fernando Maríasen irudimenaren ahalmen magikoaren emaitza da. Bernizatu berri duten sorgin-erratza baino politagoa atera zaigu; ezin duzue galdu. Fernando gure lagun maiteari izugarri gustatuko litzaioke, eta haren memoria omentzeko modu bikaina dela esango luke.*

*Arren, begiratu, eta liluratu begi eta ziri den Javier Jaenen karteleko ilargiarekin, eta utz iezaguzue naturaz gaindiko edizio honen magia zuri, distiratsu eta ilunkararekin sorgintzen.*
*Artxila murtxila!*

**Juan Bas • Carolina Ontivero**
Directores de **Ja!** *Jaialdiko zuzendariak*

Las invitaciones para asistir a los actos podrán descargarse desde nuestra web a partir del sábado 23 de septiembre.

La exposición ‘El enigma Pertierra’ y la visita guiada de Javier Olivares son de acceso libre hasta completar aforo.

*Ekitaldietara joateko gonbidapenak gure webgunetik deskargatu ahal izango dira irailaren 23tik aurrera.*

*‘Pertierra enigma’ erakusketa eta Javier Olivaresen bisita gidatua sarrera librekoak dira edukiera bete arte.*

LIBRERÍA LIBURUDENDA

Las librerías Cámara y Joker se convierten por unos días en la librería de Ja! en Bizkaia Aretoa - UPV/EHU y Sala BBK.

*Cámara eta Joker liburudendak egun batzuetan zehar Ja! liburudenda bihurtuko dira Bizkaia Aretoa - UPV/EHU eta Sala BBKan.*

SEP | IRA

## 27

MIÉRC. | ASTEAZKENA

VISITA GUIADA EXPOSICIÓN | BISITA GIDATUA ERAKUSKETARA

### JAVIER OLIVARES

### El Enigma Pertierra

**19:00 BIZKAIA ARETOA-SALA AXULAR**

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.




La forma en que surgió la idea de esta exposición parece cosa de magia, pero tiene todo el sentido que la primera gran retrospectiva de Joaquín Pertierra, ilustrador de prestigio internacional nacido presuntamente en Bilbao en 1919, se celebre en su ciudad. Javier Olivares, ligado íntima y creativamente a él por profesión y por su complicidad compartida con el escritor Fernando Marías, será el mejor cicerone posible en esta oportunidad única de conocer cómo se gestó el proyecto sobre Pertierra, mientras se observan de cerca su obra y varias de sus pertenencias.

*Magia kontua dirudi nola sortu zen erakusketa egiteko ideia. Alabaina, ez da harritzekoa Joaquin Pertierraren lehen atzerabegirakoa Bilbon egitea, ustez, han jaio baitzen, 1919an, nazioarteko ilustratzaile ospetsua. Gainera, ezin genuen lanbidez eta sormenez hertsiki lotzen zaion eta Fernando Marías idazlearekin konplizitatea duen Javier Olivares baino gidari hobeagorik eduki. Pertierrari buruzko proiektua nola sortu zen ezagutzeko eta haren obra eta ondasunak gertutik ezagutzeko aukera aparta da.*

SEP | IRA

## 28

JUEVES | OSTEGUNA

ENTREVISTA | ELKARRIZKETA

### JORGE BLASS

### MAITE ESPARZA

**19:30 SALA BBK**





Sería impensable celebrar esta edición del festival en torno a la magia sin contar con un gran mago. Uno grande de verdad, como Jorge Blass, cuyo talento precoz y reconocida trayectoria han cautivado al público de todo el mundo y a colegas como David Copperfield. Director de programas de magia para radio y televisión y divulgador de este arte, Blass es fundador y director del Festival Internacional de Magia de Madrid y patrono y mago de la Fundación Abracadabra. ¿Cómo es capaz de sacar tal cantidad de bienhumorada magia de su chistera? Maite Esparza tratará de sonsacarle el truco.

*Zentzugabekeria da magiari eskainitako edizio batean mago handi bat ez egotea. Han-dietan handia da Jorge Blass, eta, izan ere, haren talentu goiztiarrak eta ibilbide ezagu-nak mundu osoko ikusleak eta kideak liluratu ditu, baita David Copperfield bera ere. Arte hau zabaltzeko ahaleginean, magiari buruzko programak zuzentzen ditu, eta Madrilgo Nazioarteko Magia Jaialdiaren sortzailea eta zuzendaria eta Abracadabra Fundazioaren patroia eta magoa da. Nola da posible xisteratik hainbesteko magia alaia ateratzea? Maite Esparzak trukoa ezagutzeko ahaleginak egingo ditu.*

SEP | IRA

## 29

VIERNES | OSTIRALA

LA MAGIA DE LA SEDUCCIÓN | SEDUKZIOAREN MAGIA

### MANUEL JABOIS & MILENA BUSQUETS

### AZUL TEJERINA

**19:00 SALA BBK**

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.





La seducción es un arte del comportamiento. No siempre pretende la conquista erótica, pero sí la irradiación eficaz de un encanto personal. Se puede seducir desde una cocina, un escenario, con la elegancia del estilo, haciendo reír o mediante palabras de mágica belleza. Nos ha parecido que para hablar de este sugestivo tema son idóneos dos seductores de la talla de Manuel Jabois y Milena Busquets. Serán moderados por la periodista Azul Tejerina, por si se van por las ramas del árbol de las tentaciones.

*Portaeraren artea da sedukzioa. Xarma pertsonala agertzea du xede, eta ez beti konkista erotikoa. Sukaldean nahiz eszenatokian praktika daiteke sedukzioa, estiloaren dotoreziaz, barre eraginez eta hitz magikoak eta ederrak erabiliz. Manuel Jabois eta Milena Busquets limurtzaile perfektuak dira gai erakargarri honen gainean jarduteko. Azul Tejerina kazetariak moderatuko du elkarrizketa, badaezpada ere erroak utzirik tentazioen adarrei lotuta geratzen badira.*

SEP | IRA

## 29

VIERNES | OSTIRALA

ENTREVISTA | ELKARRIZKETA

### ENRIQUE VILA-MATAS

### DANIEL GASCÓN

**20:30 SALA BBK**

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.




Teníamos muchas ganas de que Enrique Vila-Matas viniera al Ja! Si algo caracteriza al prestigioso autor, más allá de sus fascinantes juegos metaliterarios y de los retratos de escritores que lo son aunque no escriban o hayan decidido dejar de hacerlo, es un sentido del humor inseparable de su concepción de la literatura. Sobre la importancia del humor en la obra de Vila-Matas y los conjuros de la arquitectura de su magia narrativa, discurrirá la entrevista que le hará Daniel Gascón, otro buen letraherido y escritor.

*Enrique Vila-Matas Ja!-ra ekartzeko grinaz geunden. Idazle prestigiotsuak joko metaliterario zirraragarriak egiten ditu, eta idatzi ez arren idazle izaten jarraitzen dutenen erretratuak ere bai. Alabaina, badu bereizgarri bat, eta, izan ere, ez du umorerik gabeko literaturarik ulertzen. Daniel Gascónek, beste hizkizale eta idazle on batek, elkarrizketatuko du. Vila-Matasen obran umoreak duen garrantzia eta haren magia narratiboaren arkitektura-araoak izango dira hizpide.*

## SEP | IRA 30 SÁBADO | LARUNBATA

BRUJAS, HECHICERAS Y MAGAS | SORGINAK, AZTIAK ETA MAGOAK

# GUSTAVO MARTÍN GARZO
# AIXA DE LA CRUZ

**19:00 SALA BBK**

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.



Mujeres de tiempos no tan remotos, que sabían de remedios naturales, eran curanderas y sanadoras, pero el oscurantismo religioso podía considerarlas brujas en pacto carnal con el diablo y llevarlas a la hoguera. Para dialogar sobre el tema, y también de magas y hechiceras en la ficción, hemos convocado en aquelarre ante el público a Gustavo Martín Garzo, por su erudición cinéfila y literaria y por su amor hacia lo fantástico, también presente en su nuevo libro 'El último atardecer', y a Aixa de la Cruz porque se ha dicho de su novela 'Las herederas' que es entre gótica y lisérgica, como el poder de la belladona.

*Duela ez asko, erremedio naturalak ezagutzen zituzten emakumeak sendatzaileak ziren, baina erlijio-obskurantismoak, deabruarekin haragizko ituna zeukatela sinetsita, sorgintzak jo zituen, eta sutan erre. Jendaurreko akelarrera deitu ditugu Gustavo Martín Garzo, zineman eta literaturan jakituna delako eta literatura fantastikoa atsegin duelako, bere azken obran, 'El último atardecer' izenekoan, ikusten den eran, eta Aixa de la Cruz, bere 'Las herederas' eleberria gotikoaren eta lisergikoaren erdibidean dagoela iritzi zaiolako, belladonaren ahalmenaren pare. Sorginkeriari eta fikziozko aztiei eta sorginei buruz jardungo dute.*



## SEP | IRA 30 SÁBADO | LARUNBATA

ENTREVISTA | ELKARRIZKETA

# OLGA TOKARCZUK
# JESÚS G. CALERO

**20:30 SALA BBK** INGLÉS CON TRADUCCIÓN SIMULTÁNEA • INGELESA ALDIBEREKO ITZULPENAREKIN

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.




Olga Tokarczuk es una escritora prodigiosa. Estamos encantados de contar por primera vez en el Ja! con una Premio Nobel de Literatura, galardón que recibió en 2018. Su poder narrativo resulta de una eficacia absorbente. Tanto desde una perspectiva mágica y fantástica en 'Un lugar llamado Antaño', como en el realismo a veces deliberadamente irreal de 'Los errantes'. Su novela más reciente es 'Los libros de Jacob', sobre un fascinante mesías y encantador de serpientes del siglo XVIII. Será muy interesante la entrevista que le hará Jesús García Calero, admirador de la literatura polaca y por supuesto de la autora.

*Olga Tokarczuk idazle bikaina da. Pozez zoratzen gaude Literatura Nobel Sari batek lehen aldiz bisitatuko gaituelako. Gure gonbidatuak 2018an jaso zuen saria, eta izugarrizko ahalmen narratiboa du, ikuspegi magiko zein fantastiko batetik ('Un lugar llamado Antaño') nahiz berariaz irreal bihurtutako errealismo batetik ('Los errantes'). Bere azken eleberriak, 'Los libros de Jacob' izenekoak, XVIII. mendeko suge sorgintzaile eta mesias liluragarria du protagonistatzat. Egilea eta, oro har, literatura poloniarra miresten dituen Jesús García Calerok elkarrizketatuko du. Interesgarria izango da entzutea.*



Ja!

jafestival.com

SÍGUENOS EN DIRECTO POR STREAMING

JARRAITU ZUZENEAN STREAMING BIDEZ

Visita nuestra web y descubre el histórico de charlas del festival desde 2010. Disponible en video y en audio.

Sartu gure webean. Jaialdian 2010etik egin diren hitzaldi guztiak dituzu eskuragai, bideoan eta audioan ere.

Ja!

## OCT | URR 1
DOMINGO | IGANDEA

EL MAGO MÉLIÈS | MÉLIÈS MAGOA

### RAQUEL SASTRE & IMANOL ITUIÑO
### JUAN BAS + LOLA BARROSO

19:00 SALA BBK




George Méliès (1861-1938) fue un mago que descubrió en el incipiente arte del cine el medio de plasmar su fértil imaginación. Creó un exuberante mundo de imágenes oníricas y acciones fantásticas que filmó en barrocos decorados. El acto consistirá en la proyección de una selección de cortometrajes y secuencias de su filmografía, que serán comentados por dos locos de Méliès: la humorista Raquel Sastre y el mago Imanol Ituiño. Al estilo de antigua sesión de cine mudo, las secuencias irán acompañadas en el escenario por la música compuesta e interpretada al piano por Lola Barroso

*George Méliès (1861-1938) magoak bere irudimen emankorra zinema hasiberrian ager-tzeko aukera aprobetxatu zuen. Irudi oniriko eta ekintza fantastikoen mundu oparoa sortu zuen eta dekoratu barrokoetan filmatu zuen. Haren filmografiaren sekuentzia eta film la-bur batzuk hautatuko dira, eta haien gainean arituko dira hizketan Mélièsen bi jarraitzaile zoro: Raquel Sastre umorista eta Imanol Ituiño magoa. Garai bateko zinema mutuaren estilora, Lola Barrosok berak pianorako konposatutako eta interpretatutako musikak lagunduko die sekuentziei.*

## OCT | URR 5
JUEVES | OSTEGUNA

MAGIA O MILAGRO | MAGIA EDO MIRARIA

### PABLO D'ORS
### ANDRÉS IBÁÑEZ

19:30 BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU • Auditorio Mitxelena Entzunaretoa

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.



¿Cómo llamamos a un suceso extraordinario y maravilloso que contradice las leyes naturales? ¿Magia? ¿Milagro? ¿Cuál es la diferencia? ¿Qué es más frecuente en literatura? ¿Sabe más de milagros Pablo d´Ors, novelista y sacerdote, que Andrés Ibáñez, autor de varios libros protagonizados por magos y otros seres misteriosos? Serán ellos mismos quienes respondan a estas y otras preguntas, y ahonden en esta sutil dualidad, que sus lectores encontramos en la literatura de ambos. Aunque no sepamos bien cómo denominar a ese encanto que despliegan en sus libros: magia o milagro.

*Nola deritzo lege naturalekin kontraesanean dagoen ezohizko gertakari miresgarri bati? Magia? Miraria? Zer desberdintasun dago? Zer da ohikoagoa literaturan? Gehiago al daki mirariez Pablo d'Ors nobelagile eta apaizak, magoei eta beste izaki misteriotsuei buruz hainbat liburu idatzi duen Andrés Ibánez egileak baino? Haiek berak erantzungo dituzte galderak, eta irakurleok baten zein bestearen literaturan antzemandako dualtasun arin horretan sakonduko dute. Alabaina, zalantzatan gaude liburuetan zabaldutako xarma hori magia ala miraria den.*

## OCT | URR 6
VIERNES | OSTIRALA

LEONORA CARRINGTON: LA RISA EN EL TEJADO | BARREA TEILATUAN

### MENCHU GUTIÉRREZ
### JAVIER MONTES

19:00 BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU • Auditorio Mitxelena Entzunaretoa

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.



La obra pictórica y literaria de Leonora Carrington aúna como pocas imaginación, magia y un sentido del humor que probablemente la salvó de la locura a la que parecía destinada. Tan cercana a los círculos surrealistas como reacia a ejercer de musa para ellos, Carrington fue una pionera del feminismo. También de la ecología, que vinculaba con la mujer en un mágico mundo primigenio. Podrán contarnos muchas cosas al respecto los escritores Menchu Gutiérrez y Javier Montes, profundos conocedores de la singularidad de la obra de esta artista de personalidad fascinante.

*Leonora Carrington idazlearen obra piktorikoak eta literarioak gutxik bezala lotzen ditu irudimena, magia eta umorea. Ziurrenik umore horrek salbatu zuen etorkizunak ekarriko zion erotasunetik. Zirkulu surrealistetan mugitzen zen, baina haien musa izateko uzkur zen. Carrington feminismoaren eta ekologiaren aitzindaria izan zen, eta, hain zuzen, emakumea jatorrizko mundu magiko batekin erlazionatzen du. Horri buruzko gauza asko kontatuko dizkigute Menchu Gutiérrez eta Javier Montes idazleek, eta, izan ere, ondo asko ezagutzen dute artista liluragarri honen lan aparta.*

## OCT | URR 6
VIERNES | OSTIRALA

ENTREVISTA | ELKARRIZKETA

### PILAR ADÓN
### CAROLINA ONTIVERO

20:30 BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU • Auditorio Mitxelena Entzunaretoa

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.




Pilar Adón pertenece a la estirpe literaria de Iris Murdoch y Patrick Modiano, autores que, aspirando a escribir siempre el 'mismo libro', de manera cada vez más depurada y perfecta, construyen universos literarios genuinos e inconfundibles. En 'De bestias y aves', su última novela, Pilar Adón ofrece la mejor versión de su escritura y muestra, más que nunca, su particular sentido del humor. Parece el momento ideal para hablar con ella de su trabajo y de su trayectoria. Pilar Adón ha estado varias veces en el festival: esta será la más mágica.

*Pilar Adón, Iris Murdoch eta Patrick Modiano jatorri bereko literatoak dira. Azken biek unibertso literario puruak eta bereziak sortzen dituzte, "liburu bera" gero eta xehetasun eta perfekzio handiagoarekin idazteko itxaropenean. 'De bestias y aves' saritua da bere azken nobela. Orain arte idatzi duen obrarik onena da, eta, inoiz ez bezala, agerian utzi du bere umore partikularra. Badirudi bere lanari eta ibilbideari buruz hitz egiteko une aproposa dela. Pilar Adón behin baino gehiagotan etorri da jaialdira, baina hau izango da magikoena.*

## OCT | URR 7
SÁBADO | LARUNBATA

¿SUEÑAN LAS IA CON TENER IMAGINACIÓN?
ADIMEN ARTIFIZIALEK IRUDIMENA IZATEA AMESTEN DUTE?

# MARTA SANZ & JUAN ARNAU

**19:00 BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU • Auditorio Mitxelena Entzunaretoa**

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.




A la controversia de los límites del humor le ha sucedido la de los límites de la inteligencia artificial. Con humor e inteligencia natural dialogarán sobre este apasionante tema el astrofísico y filósofo Juan Arnau y la escritora Marta Sanz, en cuya última novela, 'Persianas metálicas bajan de golpe', aparecen drones tan inteligentes como inquietantes. ¿Hasta dónde llega la creatividad de las IA? ¿Pueden tener sentido del humor? ¿Desarrollarán imaginación y llegarán a tomar decisiones propias? A ver qué nos cuentan al respecto dos humanistas y seres puramente humanos.

*Umorearen mugen inguruko eztabaidari adimen artifizialaren mugen gaineko eztabaidak jarraitu dio. Gai zirraragarri honen gainean jardungo dira Juan Arnau, astrofisiko eta filosofoa, eta Marta Sanz, drone adimentsuak bezain kezkagarriak protagonistatzat dituen 'Persianas metálicas bajan de golpe' eleberriaren egilea. Umorez eta adimen naturalez jardungo dira. Zenbaterainoko sormena du Adimen Artifizialak? Umorea eduki al dezakete? Irudimena garatuko al dute? Eta erabakitzeko gai izango al dira? Ea zer dioten gizaki hutsak baino ez diren bi humanista hauek.*

## OCT | URR 7
SÁBADO | LARUNBATA

ENTREVISTA | ELKARRIZKETA

# JOHN BANVILLE

## MARÍA FASCE

**20:30 BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU • Auditorio Mitxelena Entzunaretoa**

INGLÉS CON TRADUCCIÓN SIMULTÁNEA • INGELESA ALDIBEREKO ITZULPENAREKIN

Firma de libros tras el acto / Ekitaldiaren ostean, liburuak sinatzea.





John Banville (Benjamin Black cuando escribe novela negra) es autor de una vasta obra literaria. Sus novelas han sido reconocidas como expresión de la excelencia. Y es también un prestidigitador del humor mediante comparaciones metafóricas de originalidad deslumbrante y personajes de atractiva peculiaridad. De él se ha dicho que leer a Banville es «como estar frente a un mago increíblemente talentoso, ingenioso e inteligente». Su última novela, 'Las singularidades', ha sido considerada una pieza maestra. Será entrevistado por María Fasce, su editora en Alfaguara.

*John Banvillek (Benjamin Black da nobela beltza idazten duenean) literatura-lan ugari argitaratu ditu. Bere eleberriak bikaintasunaren seinalea dira. Umorearen aztia ere bada, originaltasun itzelezko metaforak erabiltzen ditu eta bere pertsonaiek berezitasun erakargarria dute. Banvillen obrak irakurtzea «sekulako talentua, argitasuna eta adimena dituen mago baten aurrean egotea» dela esan izan da. Bere azken eleberria, 'Las singularidades' izenekoa, maisulantzat jo da. María Fascek, Alfaguaran duen editoreak, elkarrizketatuko du.*

## OCT | URR 8
DOMINGO | IGANDEA

'ARGI ETA GARBI' IKUSKIZUNA

# TOR MAGOA

**12:00 BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU • Auditorio Mitxelena Entzunaretoa**

EUSKERAZ



En una edición dedicada a la magia, no puede faltar un espectáculo que la represente en vivo. Se encargará de ello el mago Tor, maestro de ceremonias de una función para todos los públicos, llena de conjuros tan variopintos como abracadabrantes. Demostrará con ellos el poder de la magia y de la ilusión. Y la importancia de que en el escenario todo luzca resplandeciente… Resplandeciente, sí; el mago Tor insiste en que es esencial que todo en su show esté cristalino. ¿De qué estamos hablando? Argi eta garbi! Está clarísimo.

*Magiari buruzko edizio batean ezin da zuzeneko ikuskizunik falta, eta oraingoan Tor magoa izango da zeremonia-maisua. Publiko guztientzako ikuskizuna eskainiko du, eta arao harrigarrien bitartez magiaren eta ilusioaren ahalmena erakutsiko dizkigu. Baita zeinen garrantzitsua den eszenatokian dena distiratsu egotea ere… distiratsu, bai; Tor magoaren ikuskizunean gardentasuna nagusitu behar da. Zer esan nahi du horrek? Argi eta garbi! Argi baino argiago dago.*

## OCT | URR 8
DOMINGO | IGANDEA

LAS 10 SECUENCIAS DE HUMOR FAVORITAS DE

# ERNESTO SEVILLA 10 SEKUENTZIARIK GUSTOKOENAK

## JUAN BAS

**19:00 BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU • Auditorio Mitxelena Entzunaretoa**





Nueva entrega de esta sección fija del festival en la que un invitado escoge sus diez secuencias de humor favoritas y las comenta con Juan Bas a medida que se van proyectando. Una renovada sesión de cine de domingo por la tarde con su comunión de risas que hay que vivir en directo, en todos los sentidos, ya que no podrá disfrutarse en streaming. El protagonista de esta edición será Ernesto Sevilla, humorista, actor y guionista, además de director de 'Cámera Café, la película' (2022) y codirector y coguionista de la serie de animación 'Pobre diablo', también de 2022.

*Jaialdiko sekzio finkoa da. Gonbidatuak bere umorezko 10 sekuentziarik gustukoenak aukeratu eta Juan Basekin komentatzen ditu, pantailan ikusten doazen heinean. Igande arratsaldeko zinema-saio berrituan barreak ez dira faltako. Alabaina, zuzenean bizi behar da, zentzu guztietan, eta, izan ere, ezin da streaming bidez ikusi. Ernesto Sevilla umorista, aktorea eta gidoilaria da edizio honetako protagonista. 'Cámera Café, la película' (2022) filma zuzendu du eta 'Pobre diablo' (2022) animaziozko seriearen zuzendarikidea eta gidoilarikidea da.*

EXPOSICIÓN / ERAKUSKETA

# JAVIER OLIVARES

## EL ENIGMA PERTIERRA ENIGMA

**20/09 - 22/10 • ENTRADA LIBRE / SARRERA DOHAINIK**

**BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU**



¿Quién fue Joaquín Pertierra? Responder a esta pregunta es adentrarse en un enigma en el que, como en los trucos de magia, lo imaginado se confunde con lo real. Entre la muestra gráfica y la cartografía del proceso creativo, esta exposición celebra la obra del misterioso Pertierra y la amistad entre Javier Olivares y Fernando Marías. También es un doble homenaje: a los ilustradores de mediados del siglo XX y a la figura del añorado Fernando Marías.

La muestra 'El enigma Pertierra' nace de un proyecto del ilustrador Javier Olivares y del escritor Fernando Marías, querido amigo de nuestro festival, fallecido en febrero de 2022. Tras catorce años de elaboración, su trabajo se ha reunido recientemente en un libro que, editado con mimo por Astiberri, funciona como el catálogo de una exposición soñada por sus autores desde el inicio. Nosotros supimos de Pertierra mucho después; coincidió con el primer aniversario de la muerte de Fernando. Entendimos que se trataba de una broma literaria, a las que era tan aficionado, que debíamos continuar, así que aceptamos el juego: la exposición se haría realidad.

Producida y diseñada por el festival con la complicidad de Olivares para la 14ª edición, la primera gran retrospectiva de Pertierra, ilustrador de prestigio internacional nacido presuntamente en 1919 en Bilbao, no podía celebrarse en un contexto mejor. Esta muestra, en la que lo imaginado se confunde con lo real, se parece mucho a un truco de magia. Su recorrido también está concebido como si se tratara de un espectáculo de prestidigitación. El truco se revela desde el inicio, sin renunciar por ello a sorprender al espectador a medida que recorre la exposición, y sobre todo en su final. La maniobra pasa por desmenuzar el misterio gráfico y literario de Pertierra —que incluye una parte importante de su obra: cubiertas de libros, de revistas, páginas de cómic; además de numerosos objetos y material original—, mientras nos adentramos en un fascinante proceso creativo que muestra cómo Olivares crece y se desdobla a lo largo de los años, mientras Joaquín Pertierra, el enigmático ilustrador creado por Fernando Marías y encarnado por Javier Olivares, va convirtiéndose en un «evanescente ser real». Si alguien duda de la existencia de la magia, en esta exposición podrá confirmar su poder, que no es otro que el de la imaginación.

***Nor zen Joaquín Pertierra? Galdera horri erantzuteko, magiazko trukoetan bezala, irudimena eta errealitatea nahasten dituen enigma batean murgildu behar gara. Erakusketa honek Pertierra misteriotsuaren obra eta Javier Olivaresen eta Fernando Mariasen arteko konplizitatea goraipatzen ditu. Erakusketa grafikoaren eta sorkuntza prozesuaren kartografiaren arteko nahasketa da. Omenaldi bikoitza ere bada: XX. mende erdialdeko ilustratzaileei eta samintasunez oroitzen dugun Fernando Marías handiari.***

*Javier Olivares ilustratzaileak eta Fernando Marías idazleak, etsipenez oroitzen dugun jaialdiko lagun handiak (2022ko otsailean zendu zen), egindako lanaren emaitza da 'El enigma Pertierra' erakusketa. Hamalau urteko lankidetzaren ostean, Astiberrik duela gutxi mimoz argitaratu duen liburua hasiera batetik bere egileek amestutako erakusketa baten katalogoa da. Guk askoz ere beranduago izan genuen Pertierraren berri, Fernandoren heriotzaren lehen urteurrenean, hain zuzen. Hainbeste gustatzen zitzaizkion txantxa literario haietako bat zela ulertu genuen, eta jarraipena eman behar geniola ere. Horregatik, jokoa onartu genuen: erakusketak argia ikusiko zuen.*

*Olivaresen laguntzaz 14. ediziorako sortu eta diseinatu dugun Pertiarreren lehen atzera-begirakoak ezin zuen testuinguru hobeagorik izan, nazioarteko ilustratzaile ospetsua Bilbon jaio baitzen, ustez, 1919an. Erakusketa honek magia-truko baten antz handia du, eta, izan ere, irudizkoa eta erreala nahasten ditu. Erakusketaren ibilbidea ere magia-ikuskizun bat da. Hasiera batetik erakusten du trukoa, baina aurrera egin ahala, eta amaieran bereziki, harridura sortzen du. Pertierraren misterio grafikoa eta literarioa xehatzen ditu —haren obraren parte garrantzitsu bat biltzen du: liburu-azalak, diskoen eta aldizkarien azalak, komiki-orrialdeak, objektuak eta material originalak—, eta, aldi berean, sormenezko prozesu zirraragarri batean murgiltzen gaitu. Urteek aurrera egin ahala, Olivares hazten eta bitan banatzen joan da, eta Joaquín Pertierra, Fernando Maríasek sortutako eta Javier Olivaresek irudikatutako ilustratzaile enigmatikoa, aldiz, «izaki bizidun iheskorra» bihurtu da. Inork magiaren ahalmenaren inguruan zalantzarik badu, erakusketa honetan irudimenaren baitan dagoela egiaztatuko du.*

*'Pertierra Enigma' erakusketaren barruan, tamaina handiko hamar irudi ikusiko dira Bil-boko metro-geltokietan: irailaren 15etik urriaren 16ra Indautxun, eta urriaren 17tik 30era San Mamesen.*




Escúchala en Spotify
*Entzun Spotifyn*







Como parte de la exposición 'El enigma Pertierra', se mostrarán diez ilustraciones reproducidas en gran formato en los vestíbulos de algunas estaciones de Metro Bilbao: del 15 de septiembre al 16 de octubre en Indautxu y del 17 al 30 de octubre en San Mamés.



Babesle Instituzionalak / Patrocinadores Institucionales

Bilbao

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EMK

Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco — Kultura eta Hizkuntza Politika Saila / Departamento de Cultura y Política Lingüística

Euskadi Basque Country — Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco — Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila / Departamento de Turismo, Comercio y Consumo

Ministerio de Cultura y Deporte — Dirección General del Libro, del Cómic y de la Lectura

Lectura infinita #pactoporlalectura

Babesle Nagusiak / Patrocinadores Principales

bbk

EL CORREO

SER 90 Aniversario Radio Bilbao

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — ehukultura

RADISSON COLLECTION GRAN VÍA BILBAO

---

Babesle Gastronomikoak / Patrocinadores Gastronómicos

LURRINA

PORRUE restaurant · jatetxea

Asador getaria erretegia

El Arandia de Julen

sutean Sukaldaritza Eskola Escuela de Cocina www.sutean.com

La bodega de Ola

Aitor Rauleaga jatetxea | restaurante

YandiOla

Aizian

---

Laguntzaileak / Colaboradores

bilbao museoa — Arte Ederren Bilboko Museoa / Museo de Bellas Artes de Bilbao

Bilbao Historiko

metro bilbao

euskotren

MONGOLIA

35 años la ría del ocio

Charamel Gozotegia

Institut Français Bilbao

ABZ Impresión Digital

AMD

Ekoplan mobiliario https://tienda.ekoplanmobiliario.com/

Neverland Estudio Gráfico

Librería Camara

librerías Joker

MediaAttack

NAUKAS ciencia, escepticismo y humor